

Noaia! Kultur Elkartek antolatuta Usurbilgo babarrun eta sagardo lehiaketak izango dira biharko protagonistak. Aukera zabala egongo da dastatzeko bertan

Sagardo eta babarrun festa

JOSU ARANBERRI

USURBIL. DV. Bihar jai giroa izango da nagusi herriko pilotalekuaren inguruan. Azken urteetako ohiturari jarraituz Santo Tomas egunaren aurreko igandean negu atariko azoka izango da bertan. Aurten ere hain etxe-koak ditugun bi produktu izango dira protagonista nagusiak: babarruna eta sagardoa.

Urte batzuk pasa dira Ziortza Gazte Elkartea egun hau antolatzen hasi zenetik, baina azken urteetan aldaketa nabariak izan ditu. Noaia! Kultur Elkartea da azken urteetan Santo Tomas eguneko azoka hau antolatzen duena eta aurten Sagardo Egunaren Lagunak taldearen laguntza ere izan du horreterako. Duela hiru urte herriko nekazal produktuen erakusketa eta babarrun eta sagardo lehiaketa egiten hasi ziren eta tartean urtebete hutsunea izan bazen ere, lehiaketa hauek izango dira egun saltsa eta piperra jarriko diotenak.

Babarrun lehiaketa

Alde batetik herriko ekoizleen babarrunak izango dira. Aurten gozta nolakoa izan den ikusteko aukera paregabea izango da bertan. Aurten, gainera, inoiz baino gehiago izango dira lehiaketa izango diren babarrun aleak antolatzailerik esanetan. 30 ekoizletik gora izan dira beraien babarruna aurkezteko izen eman dutenak eta bakoitzak jarritako 1Kg. babarrunen artean egingo da lehiaketa.

Babarrun hau plazan bertan egongo da ikusgai. Bestalde, Usurbilen Sagardotegietatik kanpo, baserri eta etxeetan egiten den sagardoaren dastatzeari izugarritzko garrantzia eman diogu. Belaunaldiz belaunaldi etxeetan mantendu den sagardogintza kultura hau eutsi eta sustatu nahi da. Bertan 25 etxetako sagardoa das-



Usurbilgo 30 ekoizleek euren baserri eta etxeetan hartuko dute parte bihar lehiaketan. (JOSU ARANBERRI)

industrialetik hain urrun, benetan naturalak diren sagardo hauek dastatu, alderatu... gozatzeko aukera paregabea; zaila bai da kalean, saltokietan, tabernetan honelako sagardoak eskuratzeak aukera izatea.

Etxeko sagardoa

Sagardo hauen artean lehiaketa egingo da aurten ere. Etxean edo baserrian egindako aurtengo sagardorik onena zein den erabakiko du epaimahaiak biharko egunez. Bi lehiaketa hauetarako sariak ere zehaztuta daude: 120 euro eta txapela sagardo eta baha-

rrenenentzat eta 40 euro hirugarrenenentzat.

Horrez gain, sagar barietateen erakusketa ere ikusgai egongo da herriko pilotalekuan. Aurtengoa Iparraldetik datorkigu, Conservatoire Vegetal Regional D'Aquitanelek Hendaia, Abbadia Jaurregiko Larrekotxea baserrian duen sagar bilduma hain zuzen ere. Bertan 40 sagar-barietate azalduko dira, 30 bat Euskal Herrikoak (Entzea, Negu sagarra, Katxao, Burdinga, Eztirosia, Uri sagarra, Eztika, Jainko sagarra...). Iparraldean bertako fruitu harietateak izango dira bertan.

elkarte honen eskutik inguru hauetan inoiz ez bada, aspaldi batean ezagutu gabeko sagar barietateak azalduko dizkigute.

Honela bada, festa giro aparta sortu daiteke bihar Usurbilen. Aurrez aipaturikoaz gain, taloa eta txistorra jateko aukera izango da Usurbilen antolatzen den Santo Tomas azoka honetan. Bilguneko kideak postu bat jarriko dute, baita Udarregi kastolako DBH 4ko ikasleek ere. Beraz, goizeko 11:30etatik aurrera festa izango da nagusi kaxko inguruan. Salmenta postuak, erakusketak,